

## TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

2015eko urriaren 6ko 398/2015 alkatetza dekretuaren bidez sortu zen Tokiko Gobernu Batzordea, eta hauek dira Batzorde horretako kideak:

Presidentea: David Crestelo Dominguez jn.

Zinegotziak: Zutoia Azurmendi Gil and., Keltse Macias Zárraga and. eta José Luis Gómez Bellido jn.

Aipatu Dekretuari jarraiki, Tokiko Gobernu Batzordeak eskumen hauek dauzka:

1. Ekonomiaren kudeaketa garatzea onartutako aurrekontuaren arabera; gastuak xedatzea, bere eskumenen mugen barruan.

2. Enplegu publikoaren eskaintza onartzea, Osoko Bilkurak onartutako aurrekontuaren eta plantillaren arabera; langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako proben oinarriak onartzea; eta finakoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.

3. Osoko Bilkurari berariaz egotzi gabeko plangintza orokorraren garapeneko plangintza-tresnak onartzea, eta horiekin batera, hirigintza-kudeaketako eta urbanizazio-proiektuetako tresnak ere bai.

4. Bere agintaritzarekiko obedientzia eza eta udal ordenantzak haustea zehatzea, ahalmen hori beste organo batzuei aitortua dagoenean izan ezik.

5. Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea, baldin eta horiek kontratatzeke edo emakida egiteko eskumenak baditu eta proiektuok aurrekontuan aurreikusita badaude.

6. Obra handiak egiteko lizentziak ematea, sektoreko legeek berariaz agindu ez badiete Osoko Bilkurari edo Tokiko Gobernu Batzordeari.

7. Era guztietako kontratuak (obrak, hornikuntzak, zerbitzuak, zerbitzu publikoen kudeaketakoak, kontratu administratibo bereziak eta kontratu pribatuak) egitea, baldin eta kontratuen zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %10 gainditzen ez badu eta sei milioi eurotik gorakoa ez bada; kontratu horien artean sartzen dira, halaber, urte anitzekoak ere, epea lau urtetik gorakoa ez denean, baldin eta urtealdi guztietako zenbateko metatuarekin lehen adierazitako ehuneko gainditzen ez bada, lehenengo ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntak kontuan hartuta, eta aipatutako zenbatekoa ere gainditzen ez bada, kontratu txikiaren esleipen prozedura erabiltzen duten kontratuen kasuan izan ezik.

8. Ondasunen gaineko esleipenak egitea eta ondasun higiezinak nahiz ondare-legeriari lotutako eskubideak eskuratzea, betiere horien balioak aurrekontuaren baliabide arrunten %10 gainditzen ez badu edo hiru milioi eurotik gorakoa ez bada. Orobat, ondarea besterentzea, horren balioak ehuneko hori eta zenbatekoa gainditzen ez baditu.

Tokiko Gobernu Batzordearen ohiko saioak hamabostean behin egiten dira, ostegunetan, goizeko 10:30etan, Alkatzetako bulegoan.

2017ko urtarrilaren 30eko Udaltzako Tokiko Gobernu Batzordeak desegitea erabaki zuen.

## **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL**

Mediante Decreto de Alcaldía nº 398/2015 de 6 de octubre de 2015, se crea la Junta de Gobierno Local, cuyos miembros son los siguientes:

Presidente: D. David Crestelo Dominguez.

Concejales: D<sup>a</sup> Zutoia Azurmendi Gil, D<sup>a</sup> Keltse Macias Zárraga y D. José Luis Gómez Bellido.

Conforme al citado Decreto, la Junta de Gobierno Local ostenta las siguientes atribuciones:

1. El desarrollo de la gestión económica de acuerdo con el Presupuesto aprobado, disponer gastos dentro de los límites de su competencia.
2. Aprobar la oferta de empleo público de acuerdo con el Presupuesto y la plantilla aprobados por el Pleno, aprobar las bases de las pruebas para la selección del personal y para los concursos de provisión de puestos de trabajo y distribuir las retribuciones complementarias que no sean fijas y periódicas.
3. Las aprobaciones de los instrumentos de planeamiento de desarrollo del planeamiento general no expresamente atribuidas al Pleno, así como los instrumentos de gestión urbanística y de los proyectos de urbanización.
4. Sancionar faltas de desobediencia a su autoridad o por infracción de las ordenanzas municipales, salvo en los casos en que tal facultad está atribuida a otros órganos.
5. La aprobación de los proyectos de obras y de servicios cuando sea competente para su contratación o concesión y estén previstos en el Presupuesto.
6. El otorgamiento de las licencias de obras mayores, salvo que las leyes sectoriales lo atribuyan expresamente al Pleno o a la Junta de Gobierno Local.
7. Las contrataciones de obras, de suministros, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados cuando su importe no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada, salvo los contratos que utilizan el procedimiento de adjudicación del contrato menor
8. La adjudicación de concesiones sobre los bienes y la adquisición de bienes inmuebles y derechos sujetos a la legislación patrimonial cuando su valor no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni el importe de tres millones de euros, así como la enajenación del patrimonio, cuando su valor no supere el porcentaje ni la cuantía indicado.

Las sesiones ordinarias de la Junta de Gobierno Local tienen lugar cada quince días, los jueves a las 10:30 horas, celebrándose en el Despacho de Alcaldía.

El Pleno del día 30 de enero de 2017 decide disolver la Junta de Gobierno Local.